

EG3

«MARTUTENE» NOBELA BERRIAREN HARIRA



RAMON SAIZARBITORIA

Bikote harremanetan sortzen diren korapiloak eta tartekako katramilak askatzen maisua da Saizarbitoria, baina bere azken nobelan, "Martutene"-n, markak hautsi ditu. Emakumeen munduari lekua zabaldu dio, eta gauza borobilak esaten hasita, gaztetako mito erotiko frantsesen ondoan gaurko euskal emakumeak interesgarriagoak iruditzen zaizkiola dio.

«Emakumeak ulertzen hasita nago, berandu bada ere»

Joxean AGIRRE

Bospasei egun behar dira, horretara jarrita, Ramon Saizarbitoriaren azken nobela, "Martutene" (Erein), irakurtzeko eta esperientzia hain da bortitza, hain gora eramaten du irakurlea tarteka, non zorabio puntu batekin hartu behar duela gero lurra. Beharbada jarrerarik onena ez bada ere, miarrespenitsu samar horrekin joan gin-

tzaizkion Groseko bere etxera elkarrizketa egitera, baina zer den bada konplexua idazle hau, ez geniola harrotasun keinu bakar bat ere atera. Hamar urte eman ditu eleberria idazten eta azken biak jai eta aste egin du lan. «Goizean goiz jaiki eta seiak aldean esertzen nintzen mahaian», dio eta bere izaera obsesiboari egotzen dio ahalegin titaniko horren errua, zeren eta ez baitu dirurik espe-

ro eta famari izua baitio. Bere bizitzako lanik handiena burutu du eta amesgaizto luze batekin esnatu den umea bezala mintzo da, lehenbailehen ahaztu egin nahi duela errepikatuz. Egia da, baina ez egia osoa: aurreko bere lanetan ez bezala, lotsak galduta ibili dela dio eta bere pertsonaiei gogoa zuten guztia esaten utzi diela aitortzen du. Bere etxea seigarren solairuan dago eta egongelatik

itsasoaren zati handi bat eta Igeldoraino bistak ikus daitezke. Ezin zaio etxe bati dena eskatu: uda beteenean zegoela eguzkia itsasoan sartzen ikusten zuen lehen eta Kursaal berriak galarazten dio orain. Liburuek estaltzen dituzte mahaiaik eta Zumeta, Goenaga eta Chillida aita-semearen lanak daude hormetatik zintzilik. Idazlea deseroso dago. Lehenbailehen bukatu nahi du elka-

rriazketa, inguruko taberna batean ardo bana eskatu eta grabagailurik gabe lasai hitz egingiten hasteko.

Nobelak baditu gai gehiago ere, baina ardatza bikote harremanen konplexutasuna dela esango nuke. Aurreko lanetan erabili duzun gaia izanik ere, "Martutene"-n xehe-tasun ikusgarriak egitera iritsi zara.



ARGAZKIAK:
Juan Carlos RUIZ / ARGAZKI
PRESS

edo ahotik kontaktuta dagoela. Narratzaile emakumearen baitan, eta zabalago esateko, emakumeen munduan, aise sartu zaren irudipena ematen du.

Berandu samar bada ere, emakumeak ulertzen hasi naizela esango nuke. Uste dut emakumeek omen duten misterioaren estalki hori urratzeak ez diela kalterik egiten eta interesgarriagoak bihurtzen dituela. Orain modan jarri da emakumeen inguruko diskurtso bat, gizonok baino argiagoak, afektiboki aberatsagoak direla errepikatzen duena eta nazka pixka bat ematen dit nik gauza hauek esan beharrik, baina sinetsita esaten ditut.

Nobelaren azken zatian, Julia trenean doa eta Martin bere bikoteak idatzitako liburu bat irakurtzen ari den neska gazte baten ondoan esertzen da. Ea liburu gustatzen al zaion galdetzen dio eta baietz erantzuten dio, idazleak emakumeak ulertzen dituelako.

Horrelako zerbait gertatzen zaio Max Frisch-i ere, bere amak errepikatzen dionean, ez dakiela zergatik idazten duen horrenbeste emakumei buruz, ulertzen ez dituenean. Baina Frisch ez da tontoa eta gai horretaz hainbeste arduratzen bada, zerbait ulertuko duelako izango da. Nobela honetan, aurrekoetan ez bezala, emakumeen arteko harremanez ari nintzela oso eroso sentitzen nintzela ohartzen nintzen. Juliaren eta Lynnen arteko konplizitate eszenak, esate baterako, oso erraz lortzen nituen eta gidoiak eszena lesbikoren bat idazteko eskatu izan balit, arazorik gabe aterako zitzaidala uste dut. Ondoen emakumeen arteko harremanak deskribatzen pasatu dudala esango nuke. Ez dakit horrela esanda nola geratuko den, baina harro nago Euskal Herriko emakumeek ematen duten irudiarekin. Estereotipoaz ari naiz, noski. Gaztetako gure mito erotikokoak frantziarrak ziren, Anouk Aimée bat, esate baterako. Orain paradigma horiek txotxoloak iruditzen zaizkit. Ezagutzen ditudan emakumeek hortik gutxiago dute, baina egiazkoago-

Neure bizitzan gehien axola zaidan gaia da, eta bidenabar literaturako gai nagusietakoa izan da beti. Nire kezka bakarra da gai honekiko dudaren arreta ez ote datorren garai batean bizi izandako defizit batetik. Batzuetan pentsatzen dut gaurko gazteek arazo gutxiago dituztela edo arazoak mahai gainean jartzeko gaitasun handiagoa dutela. Beñat Sarasolak badu bere liburu batean poema bat, nolabait esateko niri dedikatua, non emakumei gerturatu nahirik eta inoiz asmatu gabe dabilen pertsonaia baten karikatura egiten duen. Poema hori irakurri nuenean bururatu zitzaidan beharbada gazteei bat ere axola ez zaizkien kontuez ari ote nintzen idazten, baina beste askotan iruditzen zait gauzak ez ote diren horrenbeste aldatu; izan ere, gai hauek eternoak dira.

Bi narratzaile erabili dituzu eta horietako bat emakumea da, Julia. Horrek esan nahi du nobelaren erdia gutxienez emakume baten begietatik

EROSO

«Nobela honetan emakumeen arteko harremanez ari nintzela oso eroso sentitzen nintzela ohartzen nintzen. Juliaren eta Lynnen arteko konplizitate eszenak, esate baterako, erraz lortzen nituen»

EGIAZKOAGOAK

«Harro nago euskal emakumeek ematen duten irudiarekin. Gaztetako gure mito erotikokoak frantziarrak ziren, Anouk Aimée eta gisakoak. Ezagutzen ditudan emakumeek egiazkoagoak dira eta interesgarriagoak»

INTRIGA

«800 orrialdetan irakurleari eusteko baliatu naiz intrigaz. Eta bidenabar erakutsi nahi nuen intriga egitea ez dela zaila, margolari abstraktuek tarteka figuratiboa egiten duten eran»

ak dira eta interesgarriagoak. Lehen euskal gizonaz bakarrik hitz egiten zen, egiatia, zintzoa eta langilea zela nabarmentzeko. Uste dut gaur emakumeek paper interesgarriagoa jokatzen dutela gure artean. Juliak uste dut ondo erantzuten diola aipatzen dudana euskal emakumearen paradigma berri horri. Egiaia dira, benetakoak, egiten duten horretan sinesten dute. Uste dut Juliak osagarri horiek badituela. Emakumearen munduan sartzea ez zait bereziki zaila egin. Horretarako emakumei arreta jartzea aski da eta irudipena dut horretan pasatu dudala bizitza osoa. Nobela honetan amaren figurarekin izan ditut arazoak, petral samarrak, gogorak eta ezkorrak atera zaizkit, eta bitxia da hori, nik ama goxoa izan nuelako, goxoegia beharbada. Orain hain modan dagoen irakurketa psikoanalitikoak, egilearen eta obraren arteko loturak aztertzen dituenak, argitu beharko dit zergatik atera zaizkidan horrela.

Max Frisch aipatu duzu eta galdera ezinbestekoa da: esan al daiteke nobela hau berari eskainitako gorazarrea dela? Noiztik zenuen omenaldi hori egiteko gogo?

Hasiera batean Iñaki Abaituaren eta Lynn-en arteko harremanaren historia kontatzeko asmoa nuen, Max Frisch-ek "Montauk" eleberrian izen bereko neska amerikarrarekin izan zuen harremanaz esaten dituenak aitzakiatzat hartuta, idazle suitzarraren lan hori izugarri gustukoa baitut. Nik ere, Frisch-ek nobela horretan bezalaxe, maitatzeko azken aukera bat dakarkion idazle edadetu baten eta neska gazte baten arteko istorioa kontatu nahi nuen. Neskak hainbat gauza erakusten dizkio. Idazlea maitatua sentitzen da eta ohartzen da, zahartzen ari delarik, zorioneko dela horrelako maitasun bat bizi ahal duelako. Nobela horretan oso modu sinplean baina ederrean erabiltzen du Frisch-ek material autobiografikoa. Haren gorazarre modura, Abaituaren eta Lynnen arteko kontaketa hasi nintzen eta ohartu nintzen beste mila

gauza ere banituela kontatzeko. Zalantzan ibili nintzen luzaz: nobela arin eta erraz bat egin edo neure barruko zaborrak iraultzen hasi; eta bigarren bidetik joko nuela erabaki nuen, pentsatuz-eta euskal irakurleak barkatuko zidala. Nobela dituen une gailen guztiak elkarrengandik gertu jarri izan banitu, salgarriagoa izango zen seguru asko, baina barruan gordeta nituenak esan gabe geratuko nintzen.

Aurreko lanetan ere erabili izan dituzu kanpoko pertsonaiak Euskal Herriaz hitz egiteko. "Gorde nazazu"-n bazenuen neska madrildar bat, behin eta berriz «¿Pero qué os pasa a los vascos?», galdetzen zuena. Oraingoan Lynn sartu duzu, neska amerikar bat eta sekulako jokoa eman dizu, nobela osoa bete baitizu.

Berak ez du gauza handirik esaten. Ulerkorra da batez ere, espainiar asko ez diren bezala. Honek ez du aurreiritzirik. Euskara ikasten ere ahalegintzen da, atzerritarrek askotan egiten duten moduan. Besteri ematen die bidea hitz egiteko, jakinik aurrean dagoena ez dagoela kontra, eta atzerritarra denez, ez duela erantzun txarrik emango.

Ez da intriga nobela bat, baina tentsio etengabe bati eusten diona bai, eta bitxia da, zure aurreko nobeletan ez bezala, zenbat ezusteko ematen dituzun azken aldera eta ezusteko horiek nola dauden kasualitatearen edo zoriaren gainean eraikiak. Frisch-en "Homo Faber" gogoratzen dute. Une batean nobela melodrama bilakatzeko arriskuan ere ikusten nuen.

Formalki nire betiko estiloarekiko leial izaten saiatu naiz, baina egia da 800 orrialdetan irakurleari eusteko baliatu naizela intrigaz. Eta bidenabar erakutsi nahi nuen intriga egitea ez dela zaila. Nik Prousten ere intriga asko ikusten dut, beste intriga klase bat bada ere. Ez dut uste nobela poliziakoa egitea ere, suspentseari irunaraztea alegia, zaila denik. Nolabait abstrakzioa egiten duten margolariei tarteka figuratiboa egi-

tea gustatzen zaien bezala ibili naiz. *Vaudeville* itxura emateko arriskuak ere hartu ditut, Martuteneko etxearen sarrera-irteere ere bazuten-eta agertokitik zerbait.

Nobela honi buruz eman dituzun elkarrizketa bakanetan ETaren biktimekiko enpatia gutxiegi agertu izanaren damua aipatu izan duzu, edo aipatu izan dute nobelaren gai nagusietako bat balitz bezala, baina ez zait iruditu irakurritan, gai horrek leku askorik duenik.

Eskertzen dizut galdera egin izana gauzak bere lekuan jartzeko. Batzuetan komunikabideak berak elikatu du kontu hau eta beste batzuetan nik neuk ere bai, nobelaren gai nagusiez hitz egitea zail egiten zaidanez, alboetako gaiei heletzen diedalako, gai hauetaz diskurtso eginagoak baitituz. Irakurleak liburua zabaldu orduko bi ondorio aterako ditu: bata, oso potoloa dela, irakurtezina ia-ia, eta bi, ez dela indarkeriari buruzko nobela bat inondik inora, nahiz eta gaia agertzen den, "Kandinsky"-n agertzen zen bezala, nahiz eta bi lerrotan izan. Izan ere, antinaturala egiten zait nobela bat Martuteneen kokatu eta pertsonaiak mugitzen diren testuinguruaz

ari naizelarik gaia ez ateratzea. Amerikar batekin hizketan hasi orduko atera ohi dugu gaia. Nik neuk lagunak ezagutu ditut kartzelan eta lagunak ezagutu ditut bizkartzainekin. Harritu egiten naiz askotan zein erraz ahazten ditugun gauzak. Oraindik ez da asko "Hamaika pauso"-ren irakurketa gaztelaniaz egin zuen talde batek deituta Ernest Lluch kultur etxera joan nintzela, kilometro batera bizi eta ez joatea gogorra egiten zaidalako. Joan eta hara non agertzen zaidan "El Pais"-eko zutabegile bat, Cesar Gutierrez, beti gai honekin dabilena eta Fernando Aranbururen tesien inguruan asko idatzi duena. Denetik aurpegiatu zidan. Anjel Otaegirekin enpatia asko nuela, baina gutxi Pardinesekin bota zidan, esate baterako. Gogoratu behar izan nion Pardines guardia zibil frankista bat zela, diktadura baten agentea. Nik "100 metro" edo "Hamaika pauso" idatzi nituenean biktimekiko enpatiarik ez nuela erakusten aurpegiatzen zidaten bitartean, garai hartan ETako militante izandako batzuk ikusten nituen entzuleen artean, eta ez zuten txintik esan. Konbertitu berriak dira gogorrenak askotan eta ez dute ezer egiten besteak zalditik eror daitezen konbentzitzeko. Euskaraz bizi

EGUNEROKOA

«Oso goiz jaiki, eta 06.30erako hasten nintzen lanean. Eguerdian alabaren zakurrarekin Urgulletik itzulia eman, bazkaldu, siesta txiki bat egin eta berriro hasten nintzen lanean»

KONPROMISOA

«Konpromisoa? Horrek ere lotsa ematen dit, baina badut neure ideiekiko, euskararekiko eta geure kulturarekiko konpromisoa. Baina neurosi kontua ere bada, obsesio bat»

«Azken bi urteotako nire bizimodua miserablea izan da»

Orduak egon zintezke Ramon Saizarbitoriarekin bere nobelari buruz hizketan, baina ez duzu lortuko harrotasuna adieraz dezakeen esaldi bat ateratzerik. Helburuak ezinezko maila batean ezartzen dituelako-edo izan daiteke. Hamar urte eman ditu nobelarekin eta azken bi urteotan ez omen du jai egunik egin. «Aurreko urteetan ez nuke jakingo esaten zenbat ordu sartzen nituen, baina buruan etenik gabe nobela hau izan dut, tartean gaixotasun bat ere egon da, eta azken bi urteotan jai eta aste jardun dut honetan. Goizean oso goiz jaiki, sei eta erdiatarako lanean hasi eta egunak eman ditut. Eguerdian alabaren zakurra hartu eta Urgulletik itzuli bat egiten nuen; bazkaldu, siesta txiki bat egin eta gogorrena arratsaldean berriro lanari ekitea izan da. Zazpiak aldean zubien

itzulia egiten nuen eta zerbait irakurtzen nuen loak hartzen ninduen bitartean. Hori izan da nire bizimodua, oso bizimodu miserablea. Zergatik hartzen ditudan lan horiek? Zin egiten dut hor ez dagoela diru konturik, famak izua ematen didala eta gure fama, gainera, bi eguneko izaten dela. Konpromisoa? Horrek ere lotsa ematen dit, baina badut neure ideiekiko, euskararekiko eta geure kulturarekiko konpromisoa eta euskal idazle bezala sentitzen dut konpromisoa. Baina neurosi kontua da, obsesio bat. Arte-n dokumental interesgarri bat ikusi nuen ukrainar artista batena eta etxean urpeko bat fabrikatzen ari zen tipo baten istorioa kontatzen zuen. Etxeko sotoan ematen ditu orduak eta urpeko txiki hori bere bizitzeko helburu bihurtzen da, nire kasuan nobela egitea

bihurtzen den antzera. Burutu beharra bihurtzen da obsesio, berdin dio nobela izan edo urpekoa», dio.

Gaixo mental baten antzera atzera eta aurrera aditz-lagun baten bila dabilen idazlearen karikatura bat baino gehiago daude nobelan barrena, baina Juliaren bidez emanak. Juliaren bidez eman ahal izateak erraztu omen dio bidea. Tarteka, lehendik idatziak dituen lanei erreferentziak egiten dizkio idazleak berak, "Bihotz bi"-ri, esaterako, eta euskal literaturan oso gutxi edo batere erabili ez den baliabide literario horren bidez ere lorpen ederrak eskuratzen ditu.

Gaztelania, frantsesa eta batez ere ingelesa erabili ditu elkarrizketetan, hasieran gaztelaniaren presentzia handiagoa izango zela uste bazuen ere. J.A.



garenok uste dut gehiago garelako konbentzitzekoak eta politikariak ere euskaraz ari direnean gehiago mintzatzen dira konbentzitzeko. Nik nire denbora behar izan nuen zalditik erortzeko eta ETakoek zeresanik ez. Gaia agertzen da, baina testuinguruari lotuta dagoen neurrian.

Narratzaile eta protagonistetako bat sendagilea da, ginekologoa, eta harrigarria egiten da zeinen dokumentatua zauden medikuntzaren munda.

Lanagatik ere harreman handia izan nuen sendagileen munduarekin. Abaitua sendagileari sinesgarritasuna ematen baino lan gehiago kostatu zait Juliari itzultzaile gisa sinesgarritasuna ematen. Hitzei buruzko gogoeak, atsotitzen ordainak... Koldo Izagirrek asko lagundu dit.

Koldo Izagirre aipatu duzunez, nobelaren lehen irakurle gisa aurkezten duzu oharretan. Euskarari dagokionez, hasieran oso jasoa eta dotorea, baina zurrin samarra iruditu zait, nahiz eta berehala ohitzen zaren. Euskara orrazten ere lagundu al dizu? Koldok asko lagundu dit euskara orrazten, nire estiloa errespetatuz, noski. Ez zuen nahi, baina lan hori eskertu egin behar nuela uste nuen, eta lehen irakurlearen figura hori asmatu nuen, leku askotan egiteko hori editoreak bere gaian hartzen badu ere. Euskara orraztu egiten digutela esan ohi dugu, baina batzuetan permanentea ere egiten digute. Koldok asko daki eta asko ikasi dut lankidetzaz horretan.



«Eskerrak bukatzeko data bat jarri zidaten; bestela, idazten jarraituko nuen»

Ramon Saizarbitoriari liburua gizenduz joan zaio urteak joan eta urteak etorri. Askotan joaten omen zen ohera pentsatuz hortik ez zela inoiz nobela bat aterako. Eskerrak data bat jarri zioten. Datorren ostiralean (hilaren 20an) aurkeztuko du "Martutene" eta horrek behartu zuen bukatzera.

Zure ohiko estiloaz gainera badago deskribapenerako joera bat. Donostiako historia, pasadizoak bata bestearen atzetik, pertsonaia nagusien familia eta etxekeen gorabeherak... Badago oparotasun bat nabarmena. Eta badago hizketarako joera bat ere. Zure pertsonaiak hiztun bihurtu dira.

Lotsak galdu ditudalako da. Ez al dituzu agureak ikusten galtza piratekin, edozein erataria jantzita? Lotsa galtzen da adinarekin. Lotsa galdu dut eta kontatzeko gogo nuen guztia esaten utzi diet pertsonaiei. «Logorrea» deitzen zaio horri. Neure buruari galdetzen nion: «Ez al zenion Frisch-i hori eta gehiago kontatzen utziko?», eta pentsatzen nuen irakurleak niri ere utziko zidala. Badago beste gauza bat ere, kontatzeko modua edo bidea aurkitzen nuelarik, uzteko gogo gutxi izaten nuen, katuak saguarekin bezala jolasean jarraitzeko gogo. Durangoko Azokara iritsi ezin nintzen, Liburu Egunerako data jarri zidaten; eta eskerrak horri, bestela oraindik idazten jarraituko nuen. Eta hori, moztan izugarri saiatu banaiz ere; editoreak ere kentzera jarrita baitaude.

Zeuren hitz errazekoa al zara?

Ezazula pentsa. Biak ditut: batzuetan gehiegi hitz egiten dut eta beste batzuetan batere ez. Neurria falta zait. Osaba bat banuen Mutrikun jendea iheska ibiltzen zitzaiona. Osaba Benigno. Asko gogoratzen naiz berarekin. Ihes egiten genion hitz-jario

gehiegizkoa zuelako. Akordetzen naiz behin, ordurako nobelaren bat idatzia nuela, kalean topo egin genuen, hasi zitzaidan zerbait kontatzen, kontakizunaren adar nagusia utzi eta berehala itzuliko zela esan zidan adar horretara, baina itzurbide bat egin behar zuela, digresio bat alegia. Kontaketan teknika handia zuen. Baina ni ez naiz horrelakoa. Hitz gutxikoa naiz normalean lagunartean, neure gaietatik aparte behintzat. Askotan gaizki pentsatzeko moduan geratu ohi naiz bazterean. Batzuekin irekitzen naiz, baina solasa gai hauetara ekarterik ez dagoenean isilik geratu ohi naiz. Jendeak hitz egiteko gogoia izaten du eta hitz egiten uztea ere komeni izaten da. Kolegen artean ere kosta egiten zait bai nire lanaz eta bai besteen lanaz hitz egitea.

Irakurleak pentsa dezake hasiera batean zure alter ego-a Martin idazlea izan daitekeela, baina irakurri ahala oihartuko da Iñaki Abaituari ere asko eman diozula zeuretik. Zein sentitzen duzu zeureago?

Martin karikatuzatua ageri da, Juliaren ikuspegitik zirriborrotzen delako. Benetako Martin ez da horrela izango. Baina idazle den neurrian gauza asko ditu nireak, baina Abaituak ere asko du niretik eta Juliak ere bai.

Martinek fitzak betetzen ditu gero idatzi ahal izateko. Zenbat eta fitza gehiago bete, gutxiago idazten du. Zuk erabiltzen al duzu fitzarik pasadizoak eta ideiak gordetzeko?

Nik libreta txiki batzuk erabiltzen ditut [altxatu eta bere libreta horietako baten bila doa]. Erregalo ematen dizkidate eta hauetan joaten naiz ideiak apuntatzen, baina gero ezin izaten ditut irakurri, ez dut idatzitakoa ulertzen. Libretan ideia bat apuntatzeak

lasaitu egiten nau, burutik kentzen laguntzen dit horrek, idazten ez dudana galdu egingo zaidala sartzen baitzait buruan. Tarteka ohar batzuk ulertzen ditut, baina gehienak batere. [Beethovenen sinfonia bati buruzko ohar bat eta Tazitoren aipuren bat irakurtzen du edo saiatzen da irakurtzen]. Ez dakit zein idazle suitzarrek kontatzen duen Einsteinek topo egin zuela eta berak bere ideiak apuntatzen al zituen galdetu ziola. Bizitzan zehar pare bat ideia bakarrik izan zituela erantzun omen zion Einsteinek. Idazleok uste dugu gure ideiak apuntatu beharrekoak direla, baina apuntatuko ez bagenu ere, berdintsu.

Irakurketari buruz Juliak Martinen ohitura bat gogoratzen du eta Schopenhauerrek bezala gero eta fikzio gutxiago, historia eta literatura konfesional gehiago irakurtzen duela dio. Hori al da zure kasua ere?

Nik ere gero eta memoria eta aitorten liburu gehiago irakurtzen dut. Uste dut joera unibertsala dela. Badakit esatea pedantea dela, baina gero eta liburu gehiago berrirakurtzeko joera dut. Gero eta zailago dago liburu berrien artean aukeratzeko. Gu gazteak ginenean Seix Barralek ateratzen zen guztia irakurtzen genuen gaztelaniaz eta kito, gehienak onak izaten ziren. Gaur egun liburu aukera handiagoa dago eta denak omen dira irakurri beharrekoak, baina askok ez dute merezi. Nik Frantziako aldizkariren bat edo beste hartzen dut, iritzira ez ibiltzeko, baina oso zaila egiten zait liburu berriekin asmatzea.

Nobelaren azken aldera, Juliak aitortzen du gustatuko litzaikeela idaztea Gombrich-en "Munduaren historia laburra"-ren antzeko zerbait, baina Euskal Herriari buruzko historia

labur bat. Aztarnaren bat eman al dezake horrek?

Neuk ere gustura egingo nuke horrelako zerbait. Oso liburu polita da. Gombrich arte kritikari jakitun bat zen eta alabari munduaren historia kontatu zion inolako libururik kontsultatu gabe, buruan zuenarekin. Oso liburu ederra da. Liburu horretan agertzen den euskaldun bakarra Loiolako Inazio da. Sentitzen dut gazteentzako zerbait egiteko gogoia, baina horretarako gazteekin harreman gehiago beharko nuke. "Kandinsky"-ren bidetik egin dezaket zerbait.

Gazte literaturan sartu gabe, ez al duzu nahikoa lan nobela hau promozionatzen eta saltzen?

Nik ez dut promoziorik egin nahi. Liburu Eguna eta kito. Ez dakit zer egin gaztelerazko itzulpenarekin, egin edo ez egin. Eta atzerrian, noski, "Martutene"-rik gabe pasatu beharko dute. Posible balitz ere, nobela saltzen batetik bestera ibili behar badut, oso garbi daukat ez dudala nahi. Gazteleraz irudika ditzaket irakurleak nobela hau irakurtzen, baina hortik kanpo inork ere ez. Oso arraroa beharko luke alemaniar batek nire nobela irakurri nahi izateko. Nik denbora betetzeko zerbait behar dut esku artean, eta beharbada gazteentzako zerbaitekin hasiko naiz. Beste hamar bat urte pasatuko ditut.

Gastronomiak ere badu bere lekua nobelan. Joxe Mari Arbelaitz, Kokotxa jatetxea, Arzak, Arrambide... agertzen dira.

Gustatzen zait ondo jatea edo beste modu batera esanda, ez zait batere gustatzen gaizki jatea, baina ez naiz aditu bat ere. Etxean garai batean errezetekin lan egiten ibili nintzen. Orain gutxieneko sukaldaritza egiten dut.

Nobela barruan sartu dituzun kontakizunek oso izenburu ederrak dituzte: "Bihotzean min dut", "Ez du sekula atertuko", "Idazlea ispilu aurrean"... Baina "Martutene" ez da motz samarra geratzen?

Hasieratik nuen garbi horrela izango zela. "Montauk" eta "Martutene"-k bazuten antzekotasun fonetiko bat, biak dira leku bat... oso erraz asmatzen nituen Martinen nobela edo ipuinentzako izenburuak, baina neure nobelarentzako hau bakarrik atera zait. Donostiaren metafora ere bada. Zuek ez duzue donostiarron nostalgia ulertzen, baina nik Martutene erabat berdea ezagutu dut, baserriz eta jauregiz beteta. Nagelek badu koaderno bat ikusgarria Martuteneko etxe dekadenteez. Hango merienda eta dantzarako lekuak... Donostiak galdu duen iragan hobe baten aztarnak daude hor.

J.A.